

El Ilustre Colegio de la Abogacía de Gipuzkoa
Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Prestua

Convoca / iragartzen du



PREMIO / SARIA
**DECANO
DOMINGO
ARIZMENDI**
A LA ÉTICA JURÍDICA
ETIKA JURIDIKOARI

9. edizioa / 9ª edición
2026

Mas información / Informazio gehiago
www.icagi.com



ILUSTRE COLEGIO DE LA ABOGACÍA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO ABOKATUEN ELKARGO PRESTUA

Paseo Duque de Mandas, 11. 20012 Donostia/San Sebastián
Teléfono: 943 44 01 18 secretaria@icagi.com



Sariaren Oinarriak

LEHENA. Sariaren xedea Zuzenbidearen jardunean sinesgarritasun etikoaren eta deontologiaren balioak sustatzea izango da, esker ona agertuz horiekiko duten konpromiso aktiboan nabarmentzeagatik Gizarteak balio horiek lanbide juridikoen jardunari naturaltasun osoz loturiko balioak bezala hartzen dituelako.

BIGARRENA. Saria urtero emango da eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Prestuko Gobernu Batzordearen zeregina izango da deialdi horretarako data erabakitzea.

HIRUGARRENA. Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Prestuko Gobernu Batzordea izango da Epaimahaia.

LAUGARRENA. Gipuzkoako Lurralde Historikoari lotutako legelariak jaso dezakete sari hori, bai eta beren ibilbide edo jarduera zehatzagatik Euskadiko, Estatuko, Europako eta nazioarteko jarduera juridikoan eredu etiko diren pertsona eta erakundeak ere. Hautagai-zerrenda norbanako batek nahiz talde batek osa dezake. Intere-satuek edo beste edozein pertsona edo erakundek **2026ko irailaren 18ko, 14:00ak baino lehen, ostirala**, aurkeztuko dute. secretaria@icagi.com helbide elektronikoan aurkeztuko da, edo elkargoaren egoitzan, edo Gipuzkoako Abokatuen Elkargoko to-ga-aretoetako edozeinetan Irun, Tolosa, Bergara eta Eibar.

Gobernu Batzordeak beste edozein hautagai-zerrenda proposatu eta salbuespen gisa kontuan hartu ahal izango du, baldin eta, aurkeztu ez arren, bere iritziz nahikoa merezimendu betetzen badu.

BOSGARRENA. Sariak ez du inolako diru-kopururik izango, baldin eta Gobernu Batzordeak salbuespenez hori izatea erabakitzen ez badu behintzat, pilaturiko ezaugarri bereziak eta merezimenduak kontuan hartuz. Saria jasotzen duenari saria egiaztatuko duen plaka bat emango zaio. Egoki iruditzen zaion lekuan aurkeztu ahal izango du saria.

SEIGARRENA. Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Prestuko Gobernu Batzordeak erabakiko du gehiengo absolutuz eta modu arrazoituan, aurkeztu diren hautagaitzen artean. Erabaki hori apelaezina izango da.

ZAZPIGARRENA. Saria Gipuzkoako Abokatuen Elkargoko irailean egingo duen Gobernu Batzordean erabakiko da.

ZORTZIGARRENA. Gobernu Batzordeak edozein unetan baliogabetu ahal izango du sari ematea, saridunaren demerituen berri izaten duenean.

BEDERATZIGARRENA. Saria emateko ekitaldian Dekano Andre Txit argia izango da ekitaldi-buru, eta komeni den handitasuna ematen ahaleginduko da, Abokatutzaren erakunde-irudia indartzen eta gizartean aitorpen egoki bat eskaitzen lagundu dezaketen Justiziako eta Zuzenbideko profesionalei eta ordezkariari gonbidapenak igorritz. **Saria Elkargoaren egoitzan emango da, eta behar besteko aurrerapenaz jakinaraziko da.**

HAMARGARRENA. Sari honetara aurkezteak bere oinarri guzti-guztiak onartzen direla esan nahi du.